

## GURE MUNDUA.

Gaua da kotxean sartzen naiz, euri malkoak parabrisan eta ilargiak ez dit esaten ez non, norekin ikusten zaituen gau hontan.

Gidatu, gidatu beti aurrera; ahaztea deritzon lekura, zu esistitzen ez zaren lur zati hortara.

- Ze ahaztu nahi nituzke; zure usaina, telefono zenbakiak eta besoko tatuakia.

Erretrobisoretik pasatzen den mundu zatien batuketa da orain zuegandik urruntzen nauena. Euriak gogor dirau eta begiak busti dizkit, zapatak, gogoa ere.

- eta ahaztu nahi nituzke...

## MINAREN FUNTSA.

Negar egiten dudanean hor zaude zu, beti, hor geldirik niri so, beti. Eta nik ez dut sentitzen inolako minik. Negarrak egan doaz...

...ze hilda jaiotzen zaizkit, barrutik, lurra busti baino lehen, hilik.

Dena dago geldirik gugan, zure nire, gure baitan; hutsa bait da minaren funtsa, gu mintzen, inugitzen gaituena, hutsa.

## GALDERAK 1

Azkenean azaldu dira, ekidinezinak; aspaldian saiestutako hitzak: zu, ni, etorkizuna. Orain arte momentuarekin nahikoa izan da. Orain, ordea, badatoz galderak, maitia.

Utzi ditzagun alde batera, erantzunak entzuteko prest ez bagaude. Galdera guzien atzean erantzun berbera, bakarrik geratze horri beldurra.

Galderak ez dakar beti baietza eta erantzunak beti berandu heltzen dira, tapatu ezin dena atereaz: oinazea.

## (H)ERRA KANTA.

Ahaztu beharreko gauzen zerrendan, izen bat zara orain, gaizki egindako gauzen artean, beste bat. Oraindik bizirik zauzkat barruan eta ehortzi egin behar. Hau bizitzeko gogo biziz hiltzea bezala da.

Orain gauero oheratzen naiz zure ausentziaz, eta zutaz aritzen zait, zure gogoekin larrua jo ere, behin baino gehiagotan, hemendik aurrera ezezagun bat zara nahiz eta zure fotoa beti izan ohe alboan.

Zurekin egotera ohitzen hasi eta orain zu gabe egoten ikasi behar, gauzak gaizki egiteari noiz utziko diodan galdetu behar neure buruari, ostera, gauzak gaizki egiteari noiz utziko diodan.

## ESZEPTIKOARENA.

Beste gau bat erori zaigu gainera, eta hanxe da destinuak guretzat gordea zuena; eta ezidazu esan zu eta ni idatzita gaudela eta hemendik aurrera dena itxoitea dela.

Zure nahiak bihotzean habi abandonatuak direla eta ikusi beharrekoak aspaldi ikusita daudela. Ez , ez da horrela.

Erabakiak hartu behar, bizitza horixe omen da eta, eta dudu, dudu lagun bezala erabili ez oztopo bat bezala. Hobe omen da ez egina baino gaizki egindakoak damutzea, atzekoari so eginez ikasi nola egin aurrera. Konturatu momentu hau jada pasatu dela, momentuka xumeki-xumeki bizitza aurrera doala. Guzia eta ezzerren artean ia alderik ez dela eta eszeptizismoa hiltzen hasteko era bat dela.

## TREN BAT ZURE BARRURA.

Gaur tren bat hartu dut zure bihotzera, lehio ondoan eseri naiz eta kristaletik ikusten ditut nere bizitzako pasadizuak. Baina ez noa bakarrik, nere ondoan doaz eskutik helduta beldurra eta esperantza, beldurra eta gogoia. Eta haueri begira bakaradalea, pixkat aurrerago, berriz, maitemina.

-Bapatean beldurra bere lekutik jaiki eta nigana etorri da, eta zera esan dit; zure bihotzean ez dela gelditzen trenik. Hau ez behintzat.

## DESNÚDAME, DESDÚDAME.

Argia itzaltzean zenbait gauza ikusten den lez, isiltzean esan nahi ez dena azaltzen. Eta maiz, zure ahoak isiltzen dituen hitz horiek, zure begiek oihukatzen dituzte.

Zure begien zulora abaitzen naiz, haizeak jotako txori bat lez; eta esaten duzun hori dena baino gehiago zure atzean nor ezkututzen den jakin nahi nuke.

-Etorri eta kenduizkidazu arropak, kenduizkidazu dudak, biluztu nazazu, hitz egin dezagun ezin esan daitekenaz, begi biluziz begiratu elkar, badakizu, ezjakina beti izango dela nagusi; hori gabe ezingo ginateke bizi... etorri eta kenduizkidazu dudak, biluztu nazazu.

## GALDERAK 2

-gaur ere zure ondora bilduko naiz, begiek bete galdera. Eta zure begien amildegian eroriko zalkit botako ditut denak.

...bihar bat gehiago izango dut.

## HEGOEKIRA BEGIRA .

-Txoriak hiltzean erori egiten dira ala suizidatu?

-Zoroetxetako jardinetako zuhaitzak zoroak al dira?

-Eta ganean, zerbait, norbaiten bila ateratzen diren horiek, zerbait aurkitzen al dute?

-Eta zuhaitzak itzalik ematen al diete zerbait, norbaiten bila dabiltzanel, eta hauek ez al dute sekula txori erorik, suizidaturik aurkitu; zerbait, norbaiten bila dabiltzala?.

Diko hau Azkaraten grabatu genuen apirilaren bukieran, baina hemen ezintzen den hau ez da mamitzen joan den prozesu bat baino; ez litzateke dena izango Xabi eta Mikelekin abestiak landu ez bagenitu eta gero Kakik egin duen lan guztia egin izan ez bala.

Hitz eta doinu guztiak neuk eginak dira "Minaren Funtse" kantaren hitza ezik (Ion Maia). Hitzak egitekoan H.M.E.Erzenberger, E. Galeano, W. H. Auden, J. Sarriguaindia, Ruper Ortioika eta G. Ungarettiren hitzez baliatu naiz. Mila esker guztiel.

Esan Ozenkikoei ere nire eskerrik beroenak nigan konfidantza izateagatik eta hau dena atera den bezala ateratzeko bitartekoak ipintzeagatik.

Eta azkenik, muxu handi bat Iontxuri, Azkoitiko lagunei, Gasteizkoei eta Mikeli. Eskerrik asko denagatik.